

GUGGENHEIM BILBAO



Clyfford Still

PH-950, 1950

Olio-pintura mihise gainean

233,7 x 177,8 cm

Clyfford Still Museum, Denver

Honen eskaintza: Clyfford Still Museum, Denver, Colorado.

© City and County of Denver, VEGAP, Bilbo, 2016

“Artelanez ez dute izenbururik izan behar. Ez dut ikuslearen ulermena oztopatu edo lagunduko duen aipamenik nahi.” Clyfford Still, 1949[1]

Clyfford Still (Grandin, Ipar Dakota, AEB, 1904–Baltimore, Maryland, AEB, 1980)

Espresionismo Abstraktuaren lehen belaunaldiko artista izan zen. Mugimendu hori AEBn loratu zen 1950eko hamarkadaren amaieran, Bigarren Mundu Gerraren ostean. Beste artista batzuen modura, estilo horri ekin zion Stillek ezohiko ikuspegiak aztertuz eta usadiozko teknika eta metodoetatik askatuz —hala nola, astoko pintura eta pintzelak—

GUGGENHEIM BILBAO

[2]. Figuraziotik aldendu ziren espresionista abstraktuak, hots, mundua ikusten dugun moduan irudikatzen; aitzitik, errealitatea jasotzeko beste hizkuntza baten alde egin zuten, formetan, koloreetan eta lerroetan oinarritutakoa. Margolan adierazkorrak sortu zituzten, egiturarik gabeko konposizio asimetrikodunak.

Garai hartako kritikariak artista horiek bitan sailkatzen saiatu ziren: keinu-pintura eta kolore-eremuaren pintura egiten zutenak. Lehenengoaren baitan zeuden margotzeko keinua islatzeko eta nabarmentzeko joera zutenak, eta bigarrenaren barruan koloreak orban handietan zabaltzen zituztenak. Still, baina, bi kategoria horien artean zegoen, oreka perfektuan. Egia esateko, espresionista abstraktu bakoitzak lengoia eta estilo berezia zituen.

1947tik aurrera, formatu handia baino ez zuen landu Stillek. Mihise osoa bete egiten zuen espatulaz zakarki aplikatutako kolorez, eta, irudirik ez zenez agertzen, orban handienak etenik gabeko azalaren antza hartzen zuten. Artistak, gainera, kolore artegagarriak erabiltzen zituen berariaz, aparteko lanak sortzeko. Garaiko margolari gehienek ez bezala, Stillek berak prestatzen zituen pigmentuak, haren koadro erraldoietarako kolore bereziak lortzeko[3].

PH-950 (1950) lanean, Stillek modu adierazkorrean eman zuen pintura, espatula batez baliatuz, eta kolore-eremu handiak sortu zituen hainbat kolore-geruza metatuz. Margo geruza lodia denez, kolore-geruza bat kendu duela eta azpiko geruza agerian geratu dela ematen du. Laranja-hori argitsua lortzeko kontu handiz, pintzelkada zainduz, kolore biziak eman zituen; gainera, geruza irregularra da eta, ondorioz, margoak distira egiten duela ematen du[4]. Ez dago ezagut dezakegun irudirik; haien ordez sugar itxura duten formak ageri dira, zabaltzen ari diren kolore-eremuetan gora egiten dutenak[5]. Simetria eta oreka baztertu zituen konposizio berezia sortzeko: olio-pintura mihisearen mugetatik harago eraman zuen, koloreen eta forma abstraktuen panoramika bat irudikatu izan balu bezala[6]. Horia eta beltza aurrez aurre daude espazio bertikalean: argitasunak gora egiten du, goialdeko osin beltzerantz, eta talka gunean hondoko zuria nabarmentzen da, olatuen bitsa balitz bezala; mihisearen goiko aldean ere zuri hori agertzen da, gure begirada gorantz zuzenduz.

Stillek gehienetan ez zituen artelanak izendatzen, obraren inguruko argibiderik ez emateko. Lan honen letrak eta zenbakia, *PH-950*, artistaren alabak egindako katalogazio-argazkietakoak dira benetan.

Koadro handi honek paisaia bat ekar dezake gogora. Artista Albertako, Kanadako, ordoki babesgabeetan bizi izan zen gaztaroan[7]; familiak landa lurra ustiatzen zuen eta **Depresio Handian** geratutako nekazal ekonomiaren krisiari aurre egin behar izan zion.

PH-950 lana paisaia bat gogoraraz dezakeen arren, ez zen hura Stillen asmoa: ikuslearen emozioak kitzikatu nahi zituen, egoera espiritual batera eraman. Artistaren hitzetan, haren artelanak ez dira “pinturak, zentzu tradizionalen, baizik eta bizitzaren eta heriotzaren bat-egite izugarria”[8]. Artista koloreen adierazkortasunaz, akabera argitsu eta distiratsuaz edo hits eta ilunaz baliatzen zen. Koloreak aurrez aurre ipintzen zituen, ongiaren eta gaizkiaren, bizitzaren eta heriotzaren, arteko gatazka iradokitzeko.

GUGGENHEIM BILBAO

Ikasleentzako galderak

Arretaz aztertu Clyfford Stillen margolana. Denbora hartu xehetasunei begiratzeko. Zer ikusten duzu? Formarik bereizten duzu? Nola margotu zuen artistak, zure ustez?

Deskribatu erabili ahal izan zituen materialak.

Stillek ukatu egiten zuen haren pinturak paisaiekin lotura zuzena zutenik; hala ere, kritikari batzuek Ipar Ameriketako ordoki eta zelai zabalekin erlazionatzen dituzte.

Artelan hau paisaia bat balitz, non legoke? Nola deskribatuko zenuke margolanaren kolorea eta formak oinarri hartuta? Toki baten bat gogoratzen ditu? Zergatik?

Deskribatu lan honetan ikus ditzakezun koloreak. Stillek esaten zuen pintura abstraktuak gogo-aldarte bat isla zezakeela, barneko emozioak; beraz, paisaiekin ez zutela zerikusirik. Hauxe azaldu zuen: “Neure burua baino ez dut pintatzen; naturarik ez”[9].

Artelan honek jasotzen duen gogo-aldartea deskribatu. Nolakoa da? Zer sentimendu sorrarazten dizkizu?

Loturak bazterteaz gain, Stillek izenburuak ipintzeari ere muzin egiten zion —hasierako obrei jarritakoez damutzen zen—, ikuslearen esperientzia baldintzatzen baitzuten, haren ustez[10]. Ados zaude uste horrekin? Izenburuak eragina du koadro bat

hautemateko eta ulertzeko orduan? Berdin gertatzen al da liburu ala film batekin?

Artelan honi titulu bat jarri beharko bazen, zein aukeratuko zenuke?

Stillen artegintzaren ezaugarri bat da mihise handi-handiak erabiltzen zituela. Margolan monumentalak sortzen zituen ikuslea lanaren baitan biltzeko. Tamainak eragina al du obra bat hautemateko eran? Zer nahiago duzu: artelan handi bat ala txiki bat behatu?

Zergatik? Zer sentiarazten dizute obra erraldoiek? Folio tamainako margolana balitz

Stillen lan hau, nola aldatuko zen zure pertzepzioa eta iritzia?

Ikasleentzako jarduerak

Margotu sentimendu bat

Stillek gogo-aldarteak islatu nahi zituen margolanetan. Egizu koloreen zerrenda bat eta erabaki zer sentimendu lot daitekeen bakoitzarekin. Aukeratu bikote bat (kolorea eta harekin zerikusia duen emozioa); zure artelanaren protagonista izango dira. Kolore horretako tenperak baliatuz, egizu pintura abstraktu bat kartoi-mehe gainean. Gogora ezazu: arte abstraktuan ez dago irudi figuratiborik. Alderatu zure artelana ikaskideen obrarekin. Zer antzekotasun eta desberdintasun daude? Kolore bera emozio berarekin lotu duzue? Elkarrekin komentatu zergatik egin dituzuen lotura horiek.

Stillen azken nahiak

Stillen azken nahien artean, haren artelanei buruzko hiru desio zeuden[11]:

- Artelanak modu iraunkorrean egon behar ziren ikusgai haren lanari soilik eskainitako museo batean, artapena (zaintza), erakusketa eta ikerketa ziurtatzeko;
- Bilduma osorik gorde behar zen;
- Museoak, erakusketa aretoez gain, ez zuen beste gunerik izan behar, esaterako, kafetegirik ezta liburu-dendarik; bisitariak horrela artean buru-belarri murgil zitekeen.

GUGGENHEIM BILBAO

Artistak eta haren emazteak ipinitako baldintza horiek zirela eta, artelan gehienak ez ziren ikusgai egon 30 urtez baino gehiagoz. 2011n lortu zen artistari soilik eskainitako museo bat eraikitzea, Denverren, Coloradon (AEB). Imajinatu museo horren zuzendaria zarela. Idatzi Stillen azken nahi horien alde onak eta txarrak. Taldean eztabaidatu artistaren proposamen horien ingurukoak.

Ikertu eta alderatu

Espresionista abstraktuen arteko ezberdintasunak asko ziren, bakoitzak estilo berezia baitzuen, baina, hala ere, komuneko ezaugarri batzuk ere bazituzten. Hainbat espresionista abstraktuen gainean ikertu (margolariak, eskultoreak eta argazkilariek) eta alderatu guztien lana. Bilatu antzekotasunak artisten lanen artean. Zure ikerketa gidatzeko gai hauek erabil ditzakezu (edo gehiago gehitu):

- Irudia
- Tamaina edo eskala
- Gune piktorikoa
- Mugimendua
- Teknika
- Adierazkortasuna

Oharrak

1. Clyfford Stillek Betty Parsons-i idatzitako gutuna, 1949ko abenduaren 29an.
<http://www.art-theory.com/>
2. <https://clyffordstillmuseum.org/clyfford-still/>
3. https://www.sfmoma.org/artist/Clyfford_Still
4. https://royal-academy-production-asset.s3.amazonaws.com/uploads/ed9eb3a2-fa72-4be4-9441-9b41c43acab2/ABSTRACTEXPRESSIONISM_EGvF2.pdf
5. <http://www.theartstory.org/artist-still-clyfford.htm>
6. https://royal-academy-production-asset.s3.amazonaws.com/uploads/ed9eb3a2-fa72-4be4-9441-9b41c43acab2/ABSTRACTEXPRESSIONISM_EGvF2.pdf
7. https://royal-academy-production-asset.s3.amazonaws.com/uploads/ed9eb3a2-fa72-4be4-9441-9b41c43acab2/ABSTRACTEXPRESSIONISM_EGvF2.pdf
8. https://royal-academy-production-asset.s3.amazonaws.com/uploads/ed9eb3a2-fa72-4be4-9441-9b41c43acab2/ABSTRACTEXPRESSIONISM_EGvF2.pdf
9. https://www.sfmoma.org/artist/Clyfford_Still
10. <https://www.guggenheim.org/artwork/4008>
11. <http://uk.phaidon.com/agenda/art/articles/2011/december/13/why-clyfford-stills-art-stayed-hidden-for-30-years/>

Hiztegia

Depresio Handia: “29ko krax” izenez ere ezaguna da mundu-mailako krisialdi ekonomiko hau 1930eko hamarkadan eta 1940ko hamarkadaren hasieran luzatu zen.

GUGGENHEIM BILBAO

XX. mendeko krisialdirik luzeena izan zen, larriena eta herrialde gehienek bizi izan zutena.

Espressionismo Abstraktua: AEBn Bigarren Mundu Gerraren amaieran sortutako arte-mugimendua. Joera horietako egileen lanetan emozioen bat-bateko adierazpena ikus daiteke eta ez dago errealitate fisikoaren irudikapen ez aipamen zuzenik.

Estekak

<https://clyffordstillmuseum.org/about-the-collection/>

<http://www.apollo-magazine.com/a-rare-chance-to-see-works-by-clyfford-still-in-london/>

<https://www.youtube.com/watch?v=AFmEyoh8eWc>

<http://www.phaidon.com/agenda/art/articles/2011/december/13/why-clyfford-stills-art-stayed-hidden-for-30-years/>

<http://edition.cnn.com/2012/06/09/living/artist-clyfford-still-profile/index.html>

<http://www.art-theory.com/>

<http://www.smithsonianmag.com/arts-culture/clyfford-stills-sublime-art-89691/>

<http://www.artinamericamagazine.com/news-features/magazine/clyfford-still-unpacked/>